


Denbora.





3 Puzzlea

Begira Xabik zein marrazki polita egin duen.

Marrazkiari, ordea, zati batzuk erori zaizkio, eta, orain, zure laguntza behar du irudia osatzeko.

Lagunduko al zenidake Mantangorriren marrazkia osatzen?



ERANTZUNAK: 2.- S hizkia. 3.- 1-C, 2-F, 3-H, 4-D, 5-G, 6-A, 7-B, 8-I eta 9-F. 4.- Elurrezko pampinak, arku eta gezia, eta patiazok, eskiak. 5.- 1 eta 5. 6.- Kanada, Brasil, Mexiko eta Bolivia.

4 Irudian aurkitu

Hau nahasmena! Mozorrotzen hasi, eta behar ez diren gauzak hartu dituzte gure bi lagunek. Begiratu ongi irudiei. Bi pertsonaiek hauek berez ez dagokien zerbait daramate. Zein elementu daude lekuz kanpo?



-pasa

5



Sarrailak


Ainarak etxeko giltza galdu duela uste du, eta amak, badaezpada, beste giltza bat eman dio. Poltsikoan zituen giltzei begira jarri denean, ordea, bi giltza berdin dituela ohartu da. Zein dira giltza bikiak?

6 Ezkutuko hitza


Maidarren izebak ez daki oraindik nora joan oporretan.

Bidaia agentzi batera joan da informazio bila. Hizkiak ordena egokian jartzen badituzu, Maidarren izebak joan nahiko lukeen lau nazioen izena agertuko zaizkizu.

ANDAKA



LIBRAS



KOMEXI



BOVIILA




eskulana

Txoria


Jostailuzko maskota berri bat eduki nahi duzu? Argibide hauek jarraitzen badituzu, txori eder bat eraikiko duzu. Ekin lanari!

Beharrezko materiala


- Egunkari papera.
- Edozein koloretako alambre malgua.
- Harri kartoia.
- Zetazko paper hori, berdea eta laranja.
- Kola.
- Pintzela.
- Itsasteko zinta, paperezko.
- Guraizeak.
- Plastilina zuria, gorria eta laranja.




Egiteko modua




- 15 bat zentimetroko bi alambre zati moztu. Alambrearen ertz bati hiruki forma eman; horiek izango dira gure txoriaren oinak.




- Egunkari papera hartu, eta erabat zabaldu. Paperaren beheko aldean eta ertz banatan txoriaren bi hankak itsatsi zintarekin.




- Txoriaren gorputzari eta buruari itxura emateko, egunkari papera zimurtuz joan pixkanaka. Papera tolesten zoazen heinean, itsasteko zintarekin eusten joan.



- Harri kartoi zatiak kolatan sartu. Txoriaren gorputza, burua, moko eta hankak kolatan sartutako harri kartoiarekin estali behar dituzu. Harri kartoi zatiekin txoriaren hegoak eta isatsa egin, eta txoriaren gorputzari itsatsi.



- Harri kartoi lehortzen denean, zetazko paper hori, gorri eta laranja zatiak kolatan pasatu eta txoriari itsasten joan.



- Plastilina erabiliko dugu txoriaren begiak egiteko. Laranja koloreko plastilina zatiaren gainean kolore gorri eta zurikoa jarri. Zotz batekin begiei zulotxo bana egin. Itsatsi begiak txoriaren burura.